



**ARRATIAKO UDALEN**  
**MANKOMUNITATEAREN**  
**OSOKO BILKURA**  
**OSATZEKO BATZARRAREN**  
**AKTA**  
**2015EKO UZTAILAREN 29A**

**ACTA DE LA SESIÓN**  
**CONSTITUTIVA DE LA**  
**JUNTA PLENARIA DE**  
**ARRATIAKO UDALEN**  
**MANKOMUNITATEA**  
**29 DE JULIO DE 2015**

Igorren, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAREN egoitzan, bi mila eta hamabosteko uztailaren hogeita bederatzian, eguerdiko hamabietan, jarraian adierazitako pertsonak elkartu dira. 2015eko maiatzaren 24an egin ziren udal hauteskundeetako emaitzak kontuan izanda, eta Mankomunitateko Estatutuen 7. artikulua araberak, pertsona horiek mankomunitateko udaletako osoko bilkurek izendatu dituzte udal horien ordezkari izan daitezkeen. Hauek dira aipatutako udalak eta ordezkariak:

**ARANTZAZUKO UDALA:**

- Jon Monasterio Lejarazu

**AREATZAKO UDALA:**

- Asier García Artetxe
- Arkaitz Amuriza Goikoetxea

**ARTEAKO UDALA:**

- Alberto Etxebarria Gurtubai

**BEDIAKO UDALA:**

- Aitor Sorriketa Larrea
- Imanol Ispizua Arruti

**DIMAKO UDALA:**

- Nekane Intxaurtza Etxebarria
- José Antonio Aurrekoetxea Olabarri

**IGORREKO UDALA:**

- Itsaso Bengoetxea Martínez
- Naiara Zurinaga Atutxa
- Jon Koldo Mendiagoitia Urquijo
- Julen Liendo Barkin
- Andere Ortuzar Uribe

**LEMOAKO UDALA:**

- Saioa Elejabarrieta Amorrortu
- Izkander Fernández Romero
- Esther Iturrioz Rementeria
- Miguel Angel Etxebarria Etxebarria

En Igorre, sede de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, siendo las doce horas del día veintinueve de julio de dos mil quince, se reúnen las siguientes personas, las cuales han sido nombradas por los respectivos Plenos Municipales para actuar como Vocales Representantes de los mismos, a la vista de los resultados de las Elecciones Locales celebradas el día 24 de mayo de 2015, y de conformidad con el artículo 7º de los Estatutos de la Mancomunidad y se concreta en la siguiente:

**AYUNTAMIENTO DE ARANTZAZU:**

- Jon Monasterio Lejarazu

**AYUNTAMIENTO DE AREATZA:**

- Asier García Artetxe
- Arkaitz Amuriza Goikoetxea

**AYUNTAMIENTO DE ARTEA:**

- Alberto Etxebarria Gurtubai

**AYUNTAMIENTO DE BEDIA:**

- Aitor Sorriketa Larrea
- Imanol Ispizua Arruti

**AYUNTAMIENTO DE DIMA:**

- Nekane Intxaurtza Etxebarria
- José Antonio Aurrekoetxea Olabarri

**AYUNTAMIENTO DE IGORRE:**

- Itsaso Bengoetxea Martínez
- Naiara Zurinaga Atutxa
- Jon Koldo Mendiagoitia Urquijo
- Julen Liendo Barkin
- Andere Ortuzar Uribe

**AYUNTAMIENTO DE LEMOA:**

- Saioa Elejabarrieta Amorrortu
- Izkander Fernández Romero
- Esther Iturrioz Rementeria
- Miguel Angel Etxebarria Etxebarria



UBIDEKO UDALA:

- Joxe Antonio Pagola Kortajarena

ZEANURIKO UDALA:

- Eneritz Iza Uriarte
- Arkaitz Estiballes Ormaetxea

AYUNTAMIENTO DE UBIDE:

- Joxe Antonio Pagola Kortajarena

AYUNTAMIENTO DE ZEANURI:

- Eneritz Iza Uriarte
- Arkaitz Estiballes Ormaetxea

### **1.- ADINEKO MAHAIA OSATZEA**

(HAOLOko 195.2 art. eta TEOFJAEDko 37.2 art.)

Adineko Mahaia osatu da. Huteskunde Araubide Orokorren gaineko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren gaineko Araudia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 37.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, José Antonio Aurrekoetxea Olabarri jaunak, mahaikiderik zaharrenak, eta Naiara Zurinaga Atutxa andreak, mahaikiderik gazteenak, osatu dute aipatutako mahaia.

Aurrekoetxea jauna da mahaiburua, pertsonarik nagusia bera da-eta; idazkari beharretan Korporazioko Idazkaria jardun da, Maren Iturbe Llorente Karrerako Funtzionario jauna.

### **2.- MAHAIKIDEEN EGIAZTAGUTUNAK EGIAZTATZEA**

Aurkeztutako egiaztgutunak banan-banan irakurri dira eta bertako datuak lehen aipatutako pertsonekin bat datoenez, pertsona guztiek horiek batzar-aretoan daudela egiaztatu da.

### **3.-MANKOMUNITATE BATZARRA OSATU IZANA ADIERAZTEA**

Egiaztgutunak egiaztatu ostean, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEAren Osoko Bilkura formaltasunez osatuta dagoela adierazi du Adineko Mahaia.

Hala, bait. Idazkari-Kontuhartzaileak esan du ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA formaltasunez osatzea eta Mankomunitatearen legezko ordezkaria, hau da, Mankomunitateko presidentea, nor izango den zehaztea dela batzar horren helburua, hori guzti hori

### **1º.- CONSTITUCIÓN DE LA MESA DE EDAD**

(Art. 195.2 de L.O.R.E.G. y 37.2 del R.D.R.O.F.R.J.E.L)

Queda formada la Mesa de Edad, formada por D. José Antonio Aurrekoetxea Olabarri, como el Vocal de mayor edad, y por Dña. Naiara Zurinaga Atutxa como la Vocal de menor edad, todo ello de conformidad con lo previsto en el artículo 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General; y en el artículo 37.2 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Preside la Mesa el Sr. Aurrekoetxea por ser la persona de mayor edad, y actúa de Secretario de la misma, el que lo es de la Corporación, el Funcionario de Carrera D. Maren Iturbe Llorente.

### **2º.- COMPROBACIÓN DE LAS CREDENCIALES DE LOS VOCALES**

Leídas una a una las credenciales presentadas y coincidiendo éstas con las personas antedichas, se comprueba que todas están presentes en el Salón de Sesiones.

### **3.- DECLARACIÓN DE CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN**

Tras la comprobación de las credenciales, la Mesa de Edad declara formalmente constituida la Junta Plenaria de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

En éste sentido, se comenta por parte del Secretario-Interventor a los constituyentes que el doble objetivo de la presente Sesión es el de la constitución formal de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, y el determinar quien ostentará la representación legal de la



ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Estatutuaren 1. puntuko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### **4. MANKOMUNITATEKO PRESIDENTEA AUKERATzea**

Bait. Idazkari-kontuhartzaileak jakinarazi du, ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Estatutuen 1. puntuko 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Mankomunitateko Presidentea aukeratu eta izendatzeko horrela jokatu behar dela:

*"1.- Osoko Bilkurak, osatzen edo berritzen den egunean, presidente bat aukeratu behar du mahaikideen artean; pertsona hori Gobernu Batzarreko burua ere izango da.*

*Presidentea aukeratzeko botazio bakarra egingo da, idatziz eta isilpean, eta boto gehien lortzen dituen mahaikidea izendatuko da presidente. Boto-berdinketa badago, mankomunitateko udalerrietan orokorrean boto gehien lortu dituen alderdi politiko edo hauteskunde-talde edo koalizioko ordezkaria izango da Presidentea."*

Une horretan Idazkari-kontuhartzaileak EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO ordezkariari galdetu die ea 2015-2019 legegintzaldirako AUMeko Presidentzia hautatzeko botaziorako hautagairik aurkeztuko ote duten.

Une horretan Alberto Etxebarria mahaikide jaunak hartu du hitza, EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdi politikoko ordezkariaren izenean, eta Miguel Angel Etxebarria mahaikide jauna aurkeztu du aipatutako alderdiko hautagai gisa, 2015-2019 Legegintzaldirako ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Presidentzia hautatzeko botaziorako.

Une horretan Idazkari-kontuhartzaileak EHBILDU koalizioko ordezkariari galdetu die ea 2015-2019 Legegintzaldirako AUMeko Presidentzia hautatzeko botaziorako hautagairik aurkeztuko ote duten.

misma, es decir, el nombramiento del Presidente/a de la Mancomunidad, todo ello de conformidad con lo previsto en el artículo 8º, Punto 1º de los Estatutos de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA.

#### **4º.- ELECCIÓN DE PRESIDENTE/A DE LA MANCOMUNIDAD**

Informa el Sr. Secretario-Interventor acctal que según dispone el artículo 8º, Punto 1º de los Estatutos de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA, para la elección y nombramiento de Presidente/a de la Mancomunidad, se deberá proceder de la siguiente manera:

*1.- La Junta Plenaria, en el día de su constitución o renovación, elegirá de entre sus miembros a un/a Presidente/a, que lo será también de la Junta de Gobierno.*

*La elección se efectuará en una sola votación escrita y secreta, siendo designado Presidente/a el/la Vocal que obtenga el mayor número de votos. En caso de que se produzca igualdad de votos, el nombramiento recaerá en el representante del partido político o agrupación o coalición electoral que haya obtenido mayor número de votos en el conjunto de los municipios mancomunados."*

En éste momento el Secretario-Interventor pregunta a los Vocales de EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO, si van a presentar a un candidato en la votación para la elección de la Presidencia de AUM para la Legislatura 2015-2019.

En éste momento toma la palabra el Vocal Sr. Alberto Etxebarria, quien en representación de los Vocales de EUZKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO, presenta al Vocal D. Miguel Angel Etxebarria Etxebarria, como candidato de dicho partido político en la votación para la elección de la Presidencia de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA para la Legislatura 2015-2019

En éste momento el Secretario-Interventor pregunta a los Vocales de la coalición EHBILDU, si van a presentar candidato en la votación para la elección de la Presidencia de AUM para la Legislatura 2015-2019



Une horretan Elejabarrieta mahaikide andreak hartu du hitza, EHBILDU koalizioko ordezkarien izenean, eta Itsaso Bengoetxea Martínez mahaikide andrea aurkeztu du aipatutako koalizioko hautagai gisa, 2015-2019 Legegintzaldirako ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko Presidentzia hautatzeko botaziorako.

Une horretan Idazkari-kontu hartzaileak UBIDEKO ARNASAKo mahaikideari galdetu dio ea 2015-2019 Legegintzaldirako AUMeko Presidentzia hautatzeko botaziorako hautagairik aurkeztuko ote duen.

Orduan Pagola mahaikide jaunak hartu du hitza, eta UBIDEKO ARNASAren ordezkari bezala adierazi du berak ordezkatzeko duen plataformak ez duela hautagairik aurkeztuko 2015-2019 legegintzaldirako ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Presidentzia hautatzeko botaziorako.

Hautagaiak aurkeztu ostean, Mankomunitateko Presidenteak aukeratzeari ekin zaio; horretarako, isilpeko botazioa egin da eta emaitza hau izan da:

-- Botazioa egiterakoan egon diren mahaikideak: 20 mahaikide

Miguel Angel Etxebarria Etxebarria jna. 11 boto

Itsaso Bengoetxea Martínez and. 9 boto

Abstentzioa 0 boto

Balio bakoak botoak 0 boto

### **5.- PRESIDENTEAREN KARGUAZ JABETZEA**

Jarraian, Idazkari-kontuhartzaileak hitz egin du eta adierazi du, egindako botazioa eta gero, eta emandako botoen gehiengo osoz, Miguel Angel Etxebarria Etxebarria mahaikide jauna izendatuko duela ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO Udalgaindiko Erakundearen Presidente 2015-2019 Legegintzaldirako.

Presidente jaunak, ekainaren 19ko

En este momento toma la palabra la Vocal Sra. Elejabarrieta, quien en representación de los Vocales de la coalición EHBILDU presenta a la Vocal Dña. Itsaso Bengoetxea Martínez, como candidata de dicha coalición en la votación para la elección de la Presidencia de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA para la Legislatura 2015-2019

En este momento el Sr. Secretario-Interventor pregunta al Vocal de UBIDEKO ARNASA, si va a presentar candidato en la votación para la elección de la Presidencia de AUM para la Legislatura 2015-2019

En este momento toma la palabra el Vocal Sr. Pagola, quien en representación de UBIDEKO ARNASA señala que no presentará candidato de su plataforma en la votación para la elección de la Presidencia de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA para la Legislatura 2015-2019

Acto seguido se procede a la elección del Presidente/a de la Mancomunidad, a cuyo efecto se realiza la votación secreta y se obtiene el siguiente resultado:

-- Vocales presentes en el momento de la votación: 20 Vocales

D. Miguel Angel Etxebarria Etxebarria 11 votos

Dña. Itsaso Bengoetxea Martínez 9 votos

Abstención 0 votos

Votos nulos 0 votos

### **5º.- TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE PRESIDENTE**

En este momento toma la palabra el Secretario-Interventor quien comenta que tras la votación efectuada y por mayoría absoluta de los votos emitidos, el Vocal D. Miguel Angel Etxebarria Etxebarria queda nombrado Presidente de la Entidad Supramunicipal ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA para la Legislatura 2015-2019.

El Sr. Presidente promete su cargo



5/1985 Lege Organikoaren 108. artikulua arabera, bere kargua zin egin du.

según el artículo 108º de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio.

"Une horretan Miguel Angel Etxebarria Etxebarria ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEko 2015-2019ko legegintzaldirako presidente hautetsi jaunak hitza hartu du, eta udalaz gandiko erakundeko presidentearen karguan aritzeko beragan utzitako konfiantza eskertu du.

Une horretan Etxebarria jaunak Mankomunitateko aurreko presidentek, hau da, José Ramón Bustinza jaunak, Jon Bikandi jaunak, José Miguel Aldekoa jaunak, Miguel Arraibi jaunak, Joseba Ipiñazar jaunak, Aitor Sorriketa jaunak eta Josune Gorospe andreak, erakundearen alde egin duten lana eskertu eta gogorarazi du bereziki.

Halaber, presidente jaunak Mankomunitatea osatzen duten pertsona guztiek egunero egiten duten lana eskertu du, erakundetik ematen diren zerbitzuei atxikitako langileei eta teknikariei dagokienez, haien eguneroko lanak berebiziko garrantzia baitauka ARRATIA garatzeko.

Presidente jaunak Mankomunitatea osatzen duten pertsona guztiek etorkizunean Mankomunitatean kide gehiago egon daitezen egiten duten lanaren garrantzia nabarmendu du, eta legegintzaldian horren alde lan egiteko asmoa duela adierazi du.

Presidente jaunak esan du irailean Mankomunitatearen gainerako gobernu organoak eratuko direla 2015-2019ko legegintzaldirako.

Amaitzeko, presidente jaunak nabarmendu du zein garrantzitsua den Mankomunitatea ARRATIArako. Izan ere, erkidegoari modu mankomunatuan ematen zaizkion zerbitzuen bidez, arratiar guztien bizi-kalitatea hobetzea sustatzen da."

Une horretan presidente jaunak hitza eman dio Saioa Elejabarrieta Amorrortu kide andreari, eta horrek honako testu hau irakurri du:

*"Zorionak, lehendakari jauna:*

"En éste momento toma la palabra el Presidente electo de ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA para la Legislatura 2015-2019, D. Miguel Angel Etxebarria Etxebarria, quien agradece la confianza depositada en el día de hoy en su persona para desempeñar el cargo de Presidente de ésta Entidad Supramunicipal.

En éste momento el Sr. Etxebarria agradece especialmente y recuerda la labor realizada en favor de la Mancomunidad por los anteriores Presidentes de ésta Entidad, D. José Ramón Bustinza, D. Jon Bikandi, D. José Miguel Aldekoa, D. Miguel Arraibi, D. Joseba Ipiñazar, D. Aitor Sorriketa y Dña. Josune Gorospe.

Igualmente el Sr. Presidente agradece la labor que realizan día a día todas las personas que forman la Mancomunidad, en el caso de empleados y técnicos adscritos a los diferentes servicios que se prestan desde la Entidad, porque su trabajo diario tiene suma importancia para el desarrollo de ARRATIA.

El Sr. Presidente destaca la importancia del trabajo en común de todas las personas los que formamos la Mancomunidad para el desarrollo en el futuro de nuevos mancomunados y manifiesta su voluntad de trabajar en éste sentido durante la presente Legislatura.

El Sr. Presidente señala que durante el mes de septiembre se procederán a constituir el resto de los Órganos de Gobierno de la Mancomunidad para la Legislatura 2015-2019

Finalmente el Sr. Presidente destaca la importancia que tiene la Mancomunidad para ARRATIA ya que a través de los servicios que se prestan a la comunidad de forma mancomunada, se fomenta la mejora de la calidad de vida de todos los/las arratianos/arratianas."

En éste momento el Sr. Presidente concede la palabra a la Vocal Dña. Saioa Elejabarrieta Amorrortu, la cual procede a la lectura de un texto, a través del cual manifiesta lo siguiente:

*"Felicidades, señor presidente:*



Arratiarrok maiatzaren 24ko hauteskundeetan EHBILDU aukeratu gendun Arratia lideratzeko.

Lehen indarra gara, bai bozka kopuruan, baita kudeatzen doguzan Udalei erreparatzen badeutsagu.

Guk herritarrokaz dogun konpromiso hori bete egingo dogu, herrietan eta baita Mankomunitatean be.

Horregaitik, guretzat erakunde honek behar dauen lehendakaria aurkeztu dogu, Itsaso Bengoetxea: herritarren gurariatatik hurbilago dauena.

Tamalez, Mankomunitate honen ezaugarri handienetakoa da bere izaera antidemokratikoa. Adibideak ugariak izan dira denboran zehar:

- Ilegalizazio urteetan, legeak aukera emon arren, herrietako esker abertzaleko ordezkarietara itzuli gabe.
- PNVren interesetara egindako Estatuto aldaketa.
- Mankomunitatea herrien beharrezkoak egokitu baño, herriek mankomunitatearen menpe ipini dozuez.
- Plenoak goizez herritarrok eta hautetsiok bertaratzeko arazoak izan ditzagun.
- Egunerokotasunean politika baztertzaile eta alderdikoia.

Horregaitik guztiagaitik, lehendakaritzarako izen aldaketa baino politika herrikoia egingo dauen pertsona behar dogu, Itsaso Bengoetxea, hain zuzen be. Parte hartzea, herrietako eragile eta norbanakoan abotsa ekarriko dituen.

Mankomunitate hau demokratizatze hurrengo hilabeteetan EHBILDUko ordezkariok emongo doguzan pausuak: honako honeik dire:

1.- Mankomunitateren inposaketaz amaitu eta herritarren beharrezkoak lehenetsiko doguz. Herrietan onartutako erabakiak ekarriko doguz, ez alderantziz, hau da, hemen hartutakoak

Los habitantes de Arratia escogimos a EHBILDU en las elecciones del 24 de mayo para liderar nuestro pueblo.

Somos la primera fuerza, tanto en número de votos como si nos fijamos en los ayuntamientos que gestionamos.

Cumpliremos el compromiso que hemos adquirido con los ciudadanos en los pueblos y en la Mancomunidad.

Por ello, hemos presentado a la presidenta que en nuestra opinión debe tener esta institución: Itsaso Bengoetxea, la cual se encuentra más cerca de los deseos de los ciudadanos.

Por desgracia, una de las principales características de esta Mancomunidad es su carácter antidemocrático. Los ejemplos han sido numerosos a través del tiempo:

- Durante los años de la ilegalización aunque la ley daba la oportunidad, se ha cerrado la puerta a los representantes de la izquierda abertzale de los pueblos.
- Se ha modificado el Estatuto a favor de los intereses del PNV.
- En vez de adaptar la Mancomunidad a las necesidades de los pueblos, se han puesto los municipios al servicio de la Mancomunidad.
- Se celebran los plenos por las mañanas, para que los ciudadanos y los cargos electos tengamos problemas para asistir a los mismos.
- Se ha llevado a cabo una política excluyente y partidista de manera cotidiana.

Por todo ello, necesitamos una persona que, más que el cambio de nombre de la presidencia, realice una política más popular, y esa persona no es otra que Itsaso Bengoetxea. Para que la participación sea el motor de los pueblos y represente la voz de cada individuo.

He aquí los pasos que daremos en los próximos meses los representantes de EHBILDU para democratizar esta Mancomunidad :

1.- Acabar con la imposición de la Mancomunidad y priorizar las necesidades de los ciudadanos. Trasladaaremos las decisiones aprobadas en los pueblos y no al revés, es decir, llevar las aquí adoptadas



herrietara eroan, orain arte egin dan moduan. Ez daigun ahaztu, erakunde hau Udalen Mankomunitatea da, eta guk Udalak indartuko doguz.

2.- Halaber, urteak daroaguz erakunde honen birplanteamendu sakona eskatzen:

a).- Araudia aldatu beharra dago: kontraesanez betetako estatutuak dira.

b).- Zerbitzuen hausnarketa egin behar da.

c).- Alkarlanerako jarrera gailendu behar da, orain arteko baztertzaila alboratuz.

3.- Lan egingo dogu Arratian pairatzen ari garan langabeziari aurre egiteko; baita Mankomunitatea eskualdeko garapen integralaren bidean jartzeko ere.

EHBILDUKook lan egiteko ilusioz gagoz. Mankomunitatea XXI. mendera ekarteko gogoagaz. Sinistuta gatoz lanera, herriak banaka baño, indarrak batuta gehiago egin ahal dogula: alkarlanean eta herri bakoitzaren ezaugarrietara egokituta.

Helburua da alkarregaz Arratian bizi, lan eta disfrutatze eskualde bizigarriagoa egitea, eta horretara gatoz.-"

"Une horretan presidente jaunak hitza eman dio Alberto Etxebarria Gurtubai kide jaunari, eta horrek esan du, nahiz eta eztabaidatzen hasi nahi ez duen -une egokia ez izateagatik-, honakoa adierazi nahi duela:

1.- Mankomunitatearen Estatutuak indarrean daude, eta horiek aldatzeko aukera dago, egokitzat jotzen denean edo toki administrazioaren arloko legezketasunak hori zehazten duenean. Dena den, bien bitartean, AUMren Estatutuak gaur egun indarrean dauden artikuluetan xedatu bezala bete behar dira.

EHBILDUK ez zuen inolako arazorik izan, Durangoko Epaitagian Arantzazuko Udalean zinegotzigo bat zehazteko, ezarritako legezketasuna aplikatzeari

a los pueblos, como se ha hecho hasta ahora. No debemos olvidar que esta institución es una Mancomunidad de Municipios, y nosotros reforzaremos los Ayuntamientos.

2.- Asimismo, llevamos años solicitando que se replantee de forma profunda esta institución:

a).- Hay que modificar la normativa: son Estatutos llenos de contradicciones.

b).- Hay que hacer una reflexión sobre los servicios.

c).- Hay que priorizar la actitud hacia el trabajo en equipo, rechazando la actitud excluyente mostrada hasta el momento.

3.- Trabajaremos para combatir los niveles de paro que estamos sufriendo en Arratia, así como para situar a la Mancomunidad en el camino hacia el desarrollo integral de la comarca.

Los miembros de EHBILDU tenemos ilusión por trabajar. Con ganas de acercar la Mancomunidad al siglo XXI. Estamos convencidos de que aunando fuerzas conseguiremos más que actuando cada pueblo por su cuenta: trabajando en equipo y adaptándonos a las características de cada pueblo.

El objetivo es hacer de Arratia una comarca más fuerte para vivir, trabajar y disfrutar, y a eso hemos venido.-"

"En éste momento el Sr. Presidente concede la palabra al Vocal D. Alberto Etxebarria Gurtubai, el cual comenta que sin querer entrar en un debate por no ser el momento oportuno, desea manifestar lo siguiente:

1º.- Que los Estatutos de la Mancomunidad están en vigor, con la posibilidad de ser modificados en el momento se estime oportuno, o en el momento que la legalidad en materia de administración local así lo determine, pero mientras tanto, los Estatutos de AUM se deben cumplir en los términos dispuestos en el articulado vigente actualmente.

Que EHBILDU no tuvo ningún problema en aceptar el resultado del sorteo realizado en el Juzgado de Durango, en relación con la aplicación legalidad



dagokionez egindako zozketaren emaitza onartzeko orduan. Hala ere, nahiz eta ondoren jarrera aldatu zuen, hasieran ez zuen onartu AUMren Estatutuetan ezarritako legezketasun hori, Arantzazuko Udalaren Mankomunitateko Osoko Bilerako ordezkaria hautatzeko orduan.

Legezketasuna beti bete behar da, eta ez bakarrik politikaren aldetik interesgarria denean.

2.- EHBILDUK esaten badu ere "herria" adierazitakoaren alde dagoela, hori ez da gertatzen Arteako Udalaren kasuan, alkatezari dagokionez udalerriko biztanle gehienek asmoa bestelakoa baitzen. Alde horretatik, EHBILDUri eskatu nahi dio kurtsillorik ez emateko.

Horren ondorioz, herriaren hitza beti bete behar da, eta ez bakarrik politikaren aldetik interesgarria denean.

3.- Mankomunitatearen bilerak goizez edo arratsaldean izatea zehazteko unean, bere ustez komenigarriagoa da, hautetsien familia bateratzeari begira, AUMko Gobernu Organoen bilerak goizez egitea."

"Une horretan presidente jaunak hitza eman dio Joxe Antonio Pagola Kortajarena kide jaunari, eta honako hau adierazi du horrek:

1.- Luze hitz egiten ari da ARRATIA kudeatzeaz, baina azken urteotan UBIDEko Udalak uste du Mankomunitatetik ematen diren zenbait zerbitzu ez direla beharrezkoak UBIDERako eta horiek Mankomunitatetik ezarri direla.

Bere ustez, eta mankomunitateko deitutako "derrigorrezko" zerbitzuak izan ezik, Udal bakoitzak egokitzen jotzen dituen eta erabakitzen dituen Mankomunitateko zerbitzuak baino ez ditu eskuratu behar, beharriari begira. Udalaren osoko bilkuraren erabakiaren bidez, beharriari horiek agertu beharko zaizkio Mankomunitateari, horrek azter dezan zerbitzuan interesatuta bakarrik egon daitezkeen Udalei zerbitzu berria modu mankomunitatean emateko bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.

prevista para el caso de determinar una Concejalía en el Ayuntamiento de Arantzazu y en cambio en un primer momento, aunque posteriormente rectificó, no aceptó la misma legalidad prevista en los Estatutos de AUM para el caso de la designación del representante de dicho Ayuntamiento de Arantzazu en la Junta Plenaria de la Mancomunidad.

Que la legalidad hay que cumplirla siempre y no solo cuando interesa políticamente.

2º.- Que cuando EHBILDU dice estar a favor de lo que diga el "pueblo" no se demuestra en el caso del Ayuntamiento de Artea, ya que en el caso de la Alcaldía la voluntad mayoritaria de los vecinos del Municipio era otra. En tal sentido pide a EHBILDU que no acudan a dar cursillos.

Que en consecuencia, la palabra del pueblo hay que cumplirla siempre y no solo cuando interesa políticamente.

3º.- Que en el caso de determinar que las reuniones de la Mancomunidad sean en jornada de mañana o de tarde, entiende que es más conveniente para la conciliación familiar de los Corporativos es que las reuniones de los Organos de Gobierno de AUM se realicen en jornada de mañana."

"En éste momento el Sr. Presidente concede la palabra al Vocal D. Joxe Antonio Pagola Kortajarena, quien desea manifestar lo siguiente:

1º.- Que se está hablando mucho de gestionar ARRATIA, pero en los últimos años desde el Ayuntamiento de UBIDE se estima que algunos servicios prestados desde la Mancomunidad no son necesarios para UBIDE y que los mismos han sido impuestos desde la Mancomunidad.

Que a su entender, y con la salvedad de los servicios mancomunados calificados "obligatorios", cada Ayuntamiento debe participar únicamente en los servicios mancomunados que estime oportuno y así lo acuerde, todo ello en atención a sus necesidades, las cuales mediante un Acuerdo Plenario Municipal deberán ser plantearlas a la Mancomunidad, para que la misma proceda al análisis de la viabilidad técnica y económica de la prestación mancomunada de un nuevo servicio





Ez dago ados Mankomunitateko Osoko Bileran Mankomunitateko Udalei zerbitzu berriak ezartzen dizkiena izatearekin, zenbait kasutan ez baituzte horiek nahi eta ez baituzte beharrezkotzat jotzen, UBIDEko Udalaren kasuan gertatzen den bezala.

2.- Orain dela zazpi edo zortzi urte erakundearen antolaketaren egoeraren zein ARRATIako Udalei Mankomunitatek ematen zaizkien Mankomunitateko zerbitzuen kudeaketaren "azterketa/diagnostikoa" egin zen, eta, oker ez badago, Mankomunitateak diagnostiko horretan "ez gai" kalifikazioa lortu zuen.

Uste du gaur egun beharrezkoa eta komenigarria izango litzatekeela modu mankomunatuan eskaintzen diren zerbitzuen zein Mankomunitatearen eskumenen "azterketa/diagnostiko" berria egitea, etorkizunean horren funtzionamendua hobetzeko asmoz.

3.- Mankomunitateko Gobernu Organoen bileretako ordutegiari dagokionez, adierazi du bilerak beste modu batean antolatu beharko liratekeela.

Nolanahi ere, lan arrazoiak direla eta, Mankomunitatearen goizeko bileretara joan ezin dela esan du.-"

"Une horretan presidente jaunak hitza eman dio Arkaitz Estiballes Ormaetxea, kide jaunari, eta horrek ondokoa adierazi nahi izan du, maila pertsonalean, Alberto Etxebarria Gurtubai jaunak esandakoaren inguruan:

1.- Familia bateratzeko gaiari dagokionez, azalpenean demagogiarik ez egiteko eskatu du. Izan ere, berak bost urte darama lanaldian eta lansarian murrizketa aplikatzen, aita den aldetik seme-alaben zainketan eta arretan familia bateratu ahal izateko.

2.- Jakin nahiko luke bertan dauden kideetatik zenbat dauden haren egoera berean, seme-alabak zaintzeko lanaldia eta lansaria murrizteari dagokionez.

3.- Adierazi nahi du iaz Aburto

únicamente a los Ayuntamientos que pudieran estar interesados en el mismo.

Que no está de acuerdo con el hecho de que sea la Junta Plenaria de la Mancomunidad ya que imponga nuevos servicios a los Ayuntamientos mancomunados, ya que en algunos casos no los desean ni los estiman necesarios, caso del Ayuntamiento de UBIDE.

2º.- Que hace siete u ocho años se realizó un "Estudio/Diagnóstico" del estado de organización de la Entidad y de la gestión los servicios mancomunados que se prestan desde la Mancomunidad a los Ayuntamientos de ARRATIA y cree recordar que la Mancomunidad obtuvo un suspenso en el citado Diagnóstico.

Que estima que en el momento actual sería necesario y conveniente proceder a realizar un nuevo "Estudio/Diagnóstico" de los servicios que se prestan mancomunadamente y de las competencias de la Mancomunidad, todo ello con el objeto de mejorar a futuro el funcionamiento de la misma.

3º.- Que en relación con el horario de las reuniones de los Órganos de Gobierno de la Mancomunidad, señala que las reuniones debían organizarse de otra manera.

De todas formas señala que por motivos laborales le imposibilita acudir en horario de mañana a las reuniones de la Mancomunidad.-"

"En éste momento el Sr. Presidente concede la palabra al Vocal D. Arkaitz Estiballes Ormaetxea, quien a nivel personal, desea manifestar lo siguiente en relación a la intervención del Sr. Alberto Etxebarria Gurtubai:

1º.- Que le pide no haga demagogia en su exposición respecto al tema de la conciliación familiar ya que él mismo lleva cinco años aplicando la reducción en su jornada laboral y en su salario para la aplicar como padre la conciliación familiar en el cuidado y atención de sus hijos.

2º.- Que desearía conocer cuántos de los presentes están en su misma situación de reducción de jornada laboral y de salario para el cuidado de sus hijos.

3º.- Que desea señalar que el



jaunak Eusko Jaurlaritzak familia bateratzeko emandako laguntzak kendu zituela, aurrekonturik ez zegoela adierazita.

4.- Mankomunitateko Gobernu Organoen bilerak goizeko 08:30ean eginez, oso zaila da berarentzat seme-alaben zaintetan eta arretan familia benetan bateratzea, eskolaratzeko ordua baita.

Amaitzeko, Estiballes jaunak berriro ere adierazi du jakin nahiko lukeela bertan dauden kideetatik zenbat dauden haren egoera berean, seme-alabak zaintzeko lanaldia eta lansaria murrizteari dagokionez.-"

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bi mila eta hamabosteko uztailaren hogeita bederatzi eguneko eguerdiko hamabiak eta erdiak diranean, Presidente jaunak batzarra amaitutzat jo du eta nik, bait. Idazkari-Kontuhartzaileak, guzti horren fede ematen dut.

pasado año el Sr. Aburto, desde el Gobierno Vasco aduciendo falta de presupuesto, eliminó las ayudas del Gobierno Vasco a la conciliación familiar.

4º.- Que estableciendo las reuniones de los Organos de Gobierno de la Mancomunidad a las 08:30 horas de la mañana le es muy difícil proceder a ejercitar una verdadera conciliación familiar en el cuidado y atención de sus hijos, ya que es el momento de prepararles para ir la escuela.

Finalmente el Sr. Estiballes señala nuevamente que desearía conocer cuántos de los presentes están en su misma situación de reducción de jornada laboral y de salario para la ejercer la conciliación familiar en el cuidado de sus hijos.-"

Y no habiendo más asuntos de que tratar y siendo las doce horas y treinta minutos del día veintinueve de julio de dos mil quince, el Sr. Presidente ordenó levantar la Sesión, de lo que yo, el Secretario-Interventor acctl., doy fe.-